

Berriketan

Debako herri aldizkaria - 202. alea - 2015eko abendua



Eguberri on guztioi!



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gas
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

**A
D**

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPUZKOA)

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teletel.net

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel: 943 029 488 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376

Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte
Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:
Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Debako Gazte Asanblada, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:
Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:
Ander Salegi

Publizitatea:
Joseba Escudero eta Koldo Aperribai
Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debakou Udal



HEZKUNTZA, HEZUNTZA POLITIKA
ETA KULTURAREN SAHIA
Departamento de Educación,
Política Lingüística y Cultura
Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia

aurkibidea

05-07

KOLABORAZIOAK

Idoia Gereñu ("Objektutegia"),
Errima Frustratuen Kluba...

08-09

ABENDUAK 3

Euskararen Nazioarteko
Egunari errebasoa,
iruditan



10

ALBISTEA

Abenduaren 26tik 30era
bitartean ospatuko da
Animadeba jaialdia



11-14

B. GAZTEA

Sare sozialen arriskua,
elkarrizketa Robert Zappari,
inkesta...



16-17

ALBISTEA

Udazkena Gaztelekuan,
Azaroan Abenturaz Blai...



18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

2016ko Euskal Ezkontza



1986an Deban ospatutako Euskal Ezkontzaren argazkia.

Bi urtetik behin, Deban, Gure Kai E.D.T.ak euskal inauteriak antolatzen ditu. Toki ezberdinetako inauteriak ospatu ohi izan ditugu: "Lantzeko inauteriak", "Inudeak eta artzaiak", "Kaldereroak"....

2016ko aratusteetan Euskal Ezkontza hartu nahi dugu gaitzat; horrela, gure arbasoen ezkontzak nolakoak ziren irudikatu eta erakutsi nahi dugu. Otsailaren 6an, larunbat inauteri egunean, denon artean kaleak alaitu eta girotu-

ko ditugu goizean goizetik hasita. Eguerdian elkartuko gara eta kaleetan zehar, kalejiran, ezkongaien eta gonbidatuek kaleak alaituko dituzte, geldiune batzuk egin, eta horietan dantza batzuk egingez. Eguerdiko 13:30ak inguruan, denok Santa Krutz Ermitan elkartuko gara ezkontza antzezteko eta, jarraian, plazan beste pare bat dantza egingo ditugu. Ondoren, 15:00ak inguruan, Aldats pilotalekuan bazkari herrikoia egingo dugu; bertara mozzorrotuta dago-

en edonor gonbidatzen dugu (ez da derrigorrezkoa Euskal Ezkontzaren inguruko mozzorroarekin joatea). 17:00ak inguruan, dotearen aurkezpena izango da eta jarraian erromeria.

Denok gonbidatuak zaudete euskal inauterietan parte hartzera. Denon parte-hartzea oso aberasgarria da herriarentzat.

Gure Kai Euskal Dantzari Taldea

GU BAGOAZ, eta ZU?

Larriki gaixorik dauden presoak aske eta bizirik nahi ditugulako.

Ziega ilunetan itzaltzen ari diren pertsona horien bizitza jokoan dagoelako.

Sakabanaketak intimitaterako eta familia-bizitzarako eskubidea zapaltzen duelako.

Euskal presoek lege euskarririk ez duten salbuespen neurriak aplikatzen zaizkielako.

Justizia eta giza eskubideak baino

gorrotoa eta mendekua direlako darabilten jokabide horren ardatzak.

Zuk ere horrela uste baduzu, urtarilaren 9an, larunbata, Bilbon ikusiko dugu elkar.

Autobuserako eman zure izena Arkatza liburu-dendan, Maxi tabernan edo Gaztetxean. Irteera: 15:30ean, autobus geltokian.

Debako Sare





Idoia Gereñu

“OBJEKTUTEGIA”

Kontzeptua ulertu ahal izateko, herriko liburutegira begira jar gaitezke lehenik eta behin. Liburuzain jatorrak, liburu ederrak maileguan hartzeko aukera, doako txartel eta zerbitzua eta giro erosoak. Guztiak batera, herritarrentzat toki erakargarri zein mesedegarria.

Alda dezagun orain liburua eta bere orde imajina dezagun objektu bat. Edozein. Kasualitatez, atzo etxean izan ez baina behar zenuen hura, esaterako. Irudika ezazu mozorro bat, edo zerra, taladroa, mikrofonoa, plantxa, kanpin-gasa, edota bidaiatzeko maleta handi bat, adibidez.

Erabil dezagun, bada, liburutegia beharrean objektutegia, oraingoan. Behar duzun objektu hori denbora baterako maileguan hartu eta atzera bueltan eman dezakezu. Taladroa behar duzula etxeko altzari zaharra konpontzeko? Objektutegira joan, maileguan hartu, behar hainbeste erabili eta berriz ere objektutegira itzuli. Ez duzu erosten zertan aritu.

Nola ez, dirua aurrezteaz gain, etxean alperrik gordeta daukazun traste horiei toki egiteko aukera paregabea eta probetxugarria litzateke, eta egoerari alde bietatik etekina ateratu zeniezaioke. Berrerabilpena sustatu eta ekolo-

giari bulkada nimiñoa eman ahalko genioke. Erraza, sinplea eta herrian bertan garatzeko moduko proiektua.

Interesgarria proposamena, ezta? Ez da nik asmatua, noski. Britainia Handitik dator berria. Liburutegian elkartu ohi den gazte taldea, liburutegi bertan hutsik zegoen gela bat txukundu eta lanean jarri da. Hala, antolatzaileen eta bolondresen lanari esker aurrera ateratako enpresa txikia, 2015eko Europako 25 giza-enpresa onenen artean kokatu da. Hamar astetan, astean egun bakar batez objektutegia zabaldu eta 1000 pertsonak baino gehiagok erabili du zerbitzua. 100 pertsonak baino gehiagok dohaintzan eman dituzte etxean baztertuta zituzten elementuak. Eta proiektua, handitze bidean da.

Liburutegien xarma lortzea zaila izango da, bertako isiltasunak eta magia-bidaia ez baitu parekorik. Halere, proiektuak itxura ederra du eta, nire uste apalean, gure herrietan ere funtziona dezake.

Etxea gauzez josita bizi garen honetan, bota dut lehen harria. Errazena. Orain, arkitekto, ingeniari, abenturazale, sustatzaile... eta, batez ere, saltseroak behar dira ideia eraiki eta garatu ahal izateko.



Errima Frustratuen Kluba

Zenbait herritan bezala, Deban ere bada bertsoarako grina eta zaletasuna. Hala, duela bi urte inguru bertsozale gazte talde bat elkartu eta hasiera eman genion Errima Frustratuen Klubaren ibilbideari. Hasiera batean, irakasle eta guzti hasi ginen bertsoaren munduan murgiltzen. Gaur egun, aldiz, tartean-tartean elkartzen gara bertsoarako zein beste zenbait kontu antolatzeke.

Orain arte ibilia dugun bide honetan zenbait ekintza burutu ditugu, esaterako, arrakasta handia izan zuen "Bidea urratuz" bertso saio musikatua. Hemendik aurrera ere, lan eta lan jarraitzeko asmotan gara bertsoa bultzatu eta zabaltzeko ahaleaginean.



Gure proiektu berrien artean *Berriketan* aldizkarian gure txokotxo izatea dago. Beraz, ale honetatik aurrera, zenbait bertsoariren bertso sortak edo guk geuk sortuak kaleratuko ditugu, irakurlea bertso mundura hurbiltzeko oso plaza egokia izango delakoan.

Jarraian dakarzkizuegun bertsoak Haritz Casabalek idatzitako sorta bat dira. 2007ko Ibon Zabala bertso paper lehiaketan zentsuratuak izan zirenak. Bertso hauetan pederasta baten paperetik idazten du Haritzek.

Gaiaren gogortasunetik at, zentsurak sorkuntzari jarri ohi dizkion mugak gainditu nahi ditugu bertso sorta hau plazaratzuz.

GAUR DAMUTZEN NAIZ BAINA...

*nituen berrogei urte,
ez horrenbeste bertute. (BIS)
lehen emango nuke
dena ume sexu truke
gaixotasun bat nuen bai.
baina enuen sendatu nahi!*

*ikusiz hainbat argazki
igaro hainbeste asti (BIS)
nahiz jakin ondo aski
hau zegoela gaizki.
etzen damurik iristen.
enuen begirik ixten!*

*Beñaten begi dizdira
ikusten zen urrutira (BIS)
joaten zen tokira
ni berari begira.
enuen utzi aparte.
nahi nuena lortu arte!*

*nere ametsen topea
zen berekin egotea (BIS)
izan banu zortea
ginake bikotea.
ez dakit berak nahi zuen...
baina nik grabatzen nuen!*

*klasetik ateratzean
sartaraziaz kotxean (BIS)
ni Beñaten atzean
bera oihuz lertzean.
bazen garrasi ederrik.
nahiz etzegoen plazerrrik!*

*hogei polizi batera
atea botata behera (BIS)
lehenik bota lurrera
ta eskuak atzera
juxtu harrapatu ninduten
bere bideoak ikusten!*

*kalabozotik epaira
zuzenean joanez gaira (BIS)
seinalatzeko gai da
behatza nere mahaira
hogei urteko kondena.
bihar amaituko dena!*

*nengoen atxilotua
eskuburdinez lotua (BIS)
azalduaz patua
nere abokatua:
"Beñat zenuenez mindu
bere buruaz egin du!"*

*Beñat zen horren liraina...
gaztea bezain apaina (BIS)
gaur damutzen naiz baina
jaso arren ordaina
horrekin ez da nahikoa
hilda dago mutikoa!*

*ez hesi ta ez harresi
ez harresi ta ez hesi (BIS)
enaiz joango ihesi
ez dut hori merezi
denek jakin dezatela
moustro puta bat naizela!*

*egina otu aldiro
nere buruari tiro (BIS)
joko nion segido
gerta ez dadin berriro
ez dut esango gezurra.
neronek daukat beldurra!*

Doinua: Ia guriak egin du.
(Esteka: <http://bdb.bertsozale.eus/web/doimute-gia/view/2142-ia-gureak-egin-du>)

Jarraian datorren estekan bertso sorta hau eta beste hainbat aurki ditzakezue:
<https://bertsokatea.wordpress.com/category/sortak/page/2/>



Nagusilanen ibilbidea

Donostian orain dela 20 urte jaio zen eta Deban, azaroan, 13 urte bete ditu



Nagusilan elkarteko kideak, 2006ko irudi batean.

Nagusilan elkartean, adineko boluntarioek edadeko pertsonen lan egiten dute.

Gure lana laguntzea, entretenitzea eta adinekoen bakardadeari aurre egitea da, boluntarioen lagun giroan. Deban, Nagusilanek aurten, azaroan, 13 urte egin ditu, eta, astearte eta ostegunetan, gure adinekoekin, Eguneko Zentroan egoten gara.

Euskal Herriko gizartea zahartzen ari da; urte gehiago bizi gara eta ez dira nahikoa ume jaiotzen. Estatu espainolean, bizi-itzaropena 1900. urtean 34,8 urtekoa zen eta 2014an 82,4 urtekoa; 1900. urtean, 65 urte baino gehiagoko 967.774 pertsona zeuden eta oraintsu, 2014an, ia 8.500.000 gara.

Lehen, jubilazio garaia oso motza zen eta orain luzatu egin da, 20-30 urtez; eta jubilatuekin lan egiteak orain ez du zerikusirik lehengo historiarekin. Orain nahiko desberdinak eta konplexuak gara geure artean: esperientzia, ikasketak, pentsioa eta dirua, osasun/gaitasuna, adin desberdina; dependentziaren bat edo independentea; sare sozialetan edo isolatua, eta abar.

Zahartze prozesua jaiotzen garenean hasten da eta, bizitza osoan zehar, zahartzen eta berritzen goaz. Osasunaren Mundu Erakundearentzat, zahartze aktiboa osasun fisiko, psikiko eta sozialarekin lotuta dago eta, horretan, adinekoen parte-hartzeak aktiboa izan behar du.

Deban, gure inguruko beste herrietan bezala, jardueira desberdinak dauzkagu, Tipi-Tapa fisiko, psikiko eta soziala egiteko. Adinekoek hartzaile pasiboek dagokien laguntza jaso-

tzen dugu, baina pertsona aktiboek dagozkien diseinu eta jarduerak egiten ditugu gizartea hobetzeko.

Nagusilanen 20. urtemugako batzarra azaroan egin zen Donostian eta mezu batzuk hartu genituen denontzako:

-Erne egon behar dugu tratu txarreko eta gure autodeterminazioa ez galtzeko; ez dugu galdu behar gure bizitzaz erabakitze eskubidea. Batzuetan ez dugu ikusten, baina hor egoten da. Helduen segurtasuna ere berdin, beren beharrei erantzuna ematea bermatu behar dugu eta aspektu guztiak duintasunez aztertu behar dira.

-Belaunaldi desberdinekin egin behar dugu lan; harremana gehiago bultzatu Gazteleku, Gaztetxe, Nagusilan eta Arbil elkarten artean. Helduok gazteengandik ikasiko dugu eta gazteek gugandik.

-Helduen artean jarduera fisiko eta mentala egin behar ditugu, paseoak, irakurketak, seikoetan eta musean egin eta hizkuntza berria ikasi edo gure euskarara hobetu. Helduen artean esamoldeak, hitz zaharrak eta abar dauzkagu eta ezin ditugu galtzen utzi.

-Boluntario lanetan parte hartzen dugunean, gure bizi kalitatea igo egiten da eta bizitza aberastu egiten da.

-Bizitza sozial aktiboa, bizitzeko ilusioa, bizitzaren proiektu bat, bi edo hiru... edukitzeak, bizitza baikor ikusteak urte gehiago eta hobeto bizitzea dakar.

On egiten dugunean, ondo sentitzen gara.

Nagusilan Deba



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

English Academy

NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

EUSKARAK 365 EGUN

euskaltzaleon auzotik
euskararen herrira



Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan hainbat ekimen burutu dira aurten. Abenduaren 3ko ekimena da **Berriketan**-ek iruditan jasotako hau. Eguraldia lagun, aurten jolastuz, dantzatzuz eta kantatzuz aldarrikatu da euskaraz bizitzeko nahia. Zorionak eta eskerrik beroenak antolatzaile, laguntzaile eta parte-hartzaile guzti-guztiei, norbanakoei zein elkartei! Eta aipamen berezia dantzak eta kantak aurrez lantzen ibili direnei (Luzaro ikastetxea, Gure Kai dantza taldea, Musika Eskola, Kanean Kantuz...). **EUSKARAK 365 EGUN!!**





euskaraz
bizi
nahi dut



Abenduaren 26tik 30era bitartean ospatuko da Animadeba jaialdia



Helduentzako animaziozko zinea eta animazio esperimentalak bultzatzeko helburuarekin sortutako ekimena da Animadeba jaialdia, eta aurtengo abenduan VIII. edizioa ospatuko da. Ekimen ezberdinak antolatuta dira egitarauaren baitan. Hitzordu gehienak Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko dira, baina Maxi tabernara eta Gaztetxera ere iritsiko da aurtengo eskaintza.



Abenduaren 26an (larunbata) abiatuko da Animadeba, **Wild Beach** taldearen kontzertuarekin. 00:00etan hasiko da hitzordua, Maxi tabernan.

Wild Beach aurtengo udan Deban sortutako taldea da. Joseba Etxeberriak eta Patxi Suinagak osatutako bikotea da eta elektronika, popa eta rocka nahasten dituzte beren kantuetan, dantzarako musika irizpidetzat hartuz. Hilaren 26koa ez da bikoteak eskaintzen duen lehenbiziko emanaldia izango, baina kontzertu hau Animadeba jaialdiaren baitan antolatuta denez, ikuskizun audiobisuala prestatu dute hitzordurako. Beraien musika beraiek sortutako irudiekin koordinatuko dute. Kolore, forma eta soinu konposaketek hornituko dute, beraz, larunbat gaua.



Herriko sortzaile gazteen lanak ezagutzeko aukera izango da abenduaren 27an ere (igandea), Aitor Oñederraren *"I said I would never talk about politics"* film laburra proiektatuko baita Agirre jaure-

gian, arratsaldeko 19:00etan.

Hamar bat minutuko animaziozko filma da Oñederrarena, gaur egungo klase politikoari egindako kritika garratza, *Don Mariano* protagonista duena. Hala dio sinopsiak: *Mariano* jauna, hegazkina hartu eta izen handiko jatetxe batera joan da. Bertako espezialitatea kalitatezko okela gorri naturala da, koipe eta kolesterol gutxiduna.

Animadeba jaialdiarekin lotura zuzena izan du beti Aitor Oñederrak. Antolakuntza lanetan ibiltzen da, baina berak animazioaren esparruan egindako ibilbide artistikoaren zertzelada batzuk ikusteko aukera ere eskaini izan du Animadebak. Iaz, adibidez, Doctor Deseok kontzertua eskaini zuen plaza zaharrean eta sortzaile debarrak taldearekin eginiko zenbait kontzertutan erabilitako proiektzioen moldaketak eta lan berriak ikusteko aukera izan zen bertan.

Abenduaren 27an ikusgai izango dugun animaziozko lana Kimuak zigilupean aurten banatu diren zazpi film laburretako bat da. Donostiako Zinemaldian aurkeztu ziren laburmetrai horiek irailean eta harrezkero herri, jaialdi eta lehiaketa ezberdinetan proiektatu dute *"I said I would never talk about politics"*. Sari bat baino gehiago jaso ditu, gainera, azkenaldian. Besteak beste, 38. Euskal Zine Bileran maila profesionalen Film Onenaren saria eta gidoi onenaren saria jaso berri ditu. Eibarren, Lekeition, Leioan, Sorian... ere saritu dute.

Oraindik ere filma ikusi ez duenak horretarako aukera izango du Deban.

Abenduaren 28an, astelehena, bi luzemetrai eskainiko dira Agirre jauregian. 17:00etan, Ernesto Padrónen *"Tom*

Txiki eta ispilu magikoa" (2014, Espainia/Kuba) proiektatuko dute; txirotasunetik irten nahi duen nekazari txiki baten istorioa kontatzen du filmak, Tom Txikirena. Uztak hondatzen dizkion



intsektu izurri batek eta laranja itxurako ispilu magiko batek abentura bidean jarriko dute... Ondoren, 19:00etan, Samuel Ortí Martíren (Aka Sam) *"Pos eso"* filma egongo da ikusgai. Trini izeneko flamenko-dantzari baten eta haren semearen istorioa kontatzen du lanak.

Hilaren 29an, asteartea, hiru film eskainiko dituzte: *"Yoko eta bere lagunak"* film luzea (Iñigo Berasategui, Juanjo Elordi, Rishat Gilmetdinov), 17:00etan; Isabel Hergueraren *"Amore d'inverno"* laburmetraia, 19:00etan; eta Sylvain Chomet frantziarraren *"El ilusionista"* lana, 19:15ean.

Aurtengo jaialdiari abenduaren 30ean emango zaio amaiera. 19:00etan, Agirre jauregian, gortina lehiaketaren sari banaketa ekitaldia izango da, baita Kuadrillategiren animazio tailerra ere. Gauean, 22:00etan, Gaztetxean eskainiko den Brett Morgenek *"Cobain Montage Of Heck"* luzemetraiarekin agurtuko du Animadebak 2015eko egitaraua.

Jaialdiaren inguruko informazio gehiagorako: www.animadeba.com.

Gure urteurrena ospatzeko oparia:
Boleto hau ekarriz gero 10 €ko deskontua eskuratuko duzu zure erosketan.
Erosketa bakoitzeko txartel bat.

Uzuri
optika audio

Ostolaza, 7 San Francisco, 21
20820 DEBA 20870 ELGOIBAR
Tel: 943192192 Tel: 943740359



RPS: 183/12



BERRIKETAN GAZTEA

2015eko abendua
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

Gaur egun Interneten erabileraren ondorioz sortu daitezkeen arazoak (identitatea ordezkatzea, sare sozialen arriskuak, hackerrak. . .) saihesten saiatzeko eta gazteek gai honi buruz daukaten ezjakintasunari aurre egiteko, urriaren 27an Mendata institutuko 3. mailako ikasleei hitzaldi bat eman zien Ertzaintzako kide batek, goizeko lehenengo bi orduetan. Honako gaietara buruz hitz egin zuen:

TUENTI:

Tuentian jendeak edozer gauza partekatzeko joera dauka, ezer pasako ez delakoan. Arratsaldean egin behar duena aipatu, bezperako parrandan grabatutako bideoak edota norbera konpromezuan jar dezaketen argazkiak ere partekatzen dituzte, bi aldiz pentsatu gabe. Kontrolik gabeko argitalpenak oso ohikoak dira sare sozialetan.

Egin behar ez genukeen beste gauza bat da gure helbidea, telefonoa eta informazioa jartzea. Hori eginez gero, gure pribatutasuna galtzen dugu, ezin dugulako jakin informazio hori nork ikus dezakeen.

Skype programaren arriskuak:

Programa deskargatu, profila sortu eta prest zaude mezuak eta ideiak jasotzeko. Skype erabiltzen duzun bitartean, zure pribatutasuna urratzeaz gain, edonor jar daiteke zurekin harremanetan.

Deskarga dohainik egin daitekeenez, gazteontzat oso arriskutsua izan daiteke ezagutzen ez ditugun pertsonekin harremanetan jartzea. Izan ere, gazteoi kalte egiteko asmoa duten pertsonen aukera handiak izan ditzakete gazteekin komunikatu eta euren konfiantza bereganatzeko.

Sare sozialek sor ditzaketen arazoaren artean honako hauek aipatu litezke:

- 1.- Sexu indarkeria
- 2.- Irainak eta bullying-a: Ciberbullying-a, adibidez
- 3.- Identitatea ordezkatzea: ustezko identitate bat sortzea anonimatuari esker
- 4.- Pasahitza galtzea

Bestelako gai batzuei buruz ere hitz egin zuen, hala nola mugikorra, bullying-a, webcam-a, Wifi sarea, Aurpegi faltsuak (maskara), identitate lapurketa, sexu erasoak eta hackerrak.

Sare sozialen arriskua





ELKA RRIZ KETA

Robert Zappa:

**“Asko gustatzen zaizkit
Euskal Herriko mendiak,
janaria, hondartza,
paisaiak eta jendea”**

Oraingo honetan, Mendata ikastetxera etorri den estatubatuarri egin diogu elkarrizketa. Robert du izena eta ikasturte honetan guri ingelesa ikasten laguntzera etorri da. Astean behin, ingeleseko irakaslearekin batera joaten da ikasgeletara, gure ahoskera lantzeko. Beraz, berari buruz gehiago jakiteko hurbildu gatazka elkarrizketa hau egitera.

Nongoa zara? Zer duzu gustuko zure herrialdean?

Ni Woodstookekoa naiz, Chicagotik gertu dagoen herri batekoa. Niri nire herrialdea asko gustatzen zait, batez ere bertako pizza eta baita hango paisaiak ere.

Chicagoko pizza oso berezia da, oso-oso potoloa da. Lehenengo masa bat du, gero gazta pila bat eta azkenik gain-gainean tomatea darama beste osagai batekin: haragi xehatua, txorizoa...

Zein tradizio daude zure herrian?

Chicagon irlandar asko daude. Beraz, San Patrizio eguna oso garrantzitsua da; egun horretan ibaia berde kolorekoa bihurtzen da. Lehen esan bezala, pizza ere oso ezaguna da eta baita beste hainbat gauza ere.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira? Gustuko al duzu?

Urriari etorri nintzen, orain dela oso gutxi. Bai, egia esan, asko gustatzen zaizkit mendiak, janaria, hondartza, paisaiak eta jendea, oso irekia baita.

Oso desberdina al da Chicago Euskal Herriarekin alderatuta?

Bai, oso ezberdina da. Chicago oso herri lava da eta erai-kin altuak daude bertan; hemen, berriz, guztiz kontrakoa.

Euskal Herrira etorri aurretik, bidaiatu al duzu beste non-baitera?

Bai, leku askotan egon naiz: Frantzia, Bartzelonan, Andorran, Korean, Jamaikan, Mexikon... eta beste hainbat lekutan ere.

Bakarrik etorri al zinen? Zeinekin?

Ez, nire andregaiarekin eta nire katuarekin etorri nintzen.

Zergatik etorri zinen?

Gaztelania ikasi nahi nuelako, leku berriak ezagutu nahi nituelako eta lan bila nenbilerako.

Guk Euskal Herrian euskaraz hitz egiten dugu. Guk geure hizkuntzan hitz egitean, nola sentitzen zara?

Ez dut ezer ere ulertzen, baina ondo moldatzen naiz. Ez naiz oso eroso sentitzen, egia esan. Baina tira... nik hautatutakoa da.

WHATSAPPA

Berriki sare sozialei buruzko hitzaldi bat izan dugunez, 3.DBHko ikasleei gai honi buruzko inkesta egitea erabaki dugu oraingo honetan:

- 1.- Zenbat urterekin hasi zinen whatsapp erabiltzen?
- 2.- Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu egunean?
- 3.- Beharrezkoa dela uste duzu?
- 4.- Zertarako erabiltzen duzu?
- 5.- Erabilera egokia ematen diozula uste duzu?
- 6.- Ezagutzen al duzu erabilera desegoki baten ondorioz gertatutako kasuren bat?



Ane Gomez:

- 1.- Hamar urterekin hasi nintzen.
- 2.- Bi ordu egunean.
- 3.- Bai.
- 4.- Lagunekin komunikatzeko eta mutilekin ligatzeko.
- 5.- Bai.
- 6.- Argazki pribatuak bidaltzea.



Mikel Zabala:

- 1.- Hamaika urterekin hasi nintzen.
- 2.- Hiru ordu egunean.
- 3.- Bai.
- 4.- Lagunekin geratzeko, hitz egiteko...
- 5.- Bai.
- 6.- Zenbait kasu ezagutzen ditut.



Nerea Aizpurua:

- 1.- Hamabi urterekin hasi nintzen.
- 2.- Bi ordu egunean.
- 3.- Alde batetik bai eta beste batetik, ez.
- 4.- Hitz egiteko.
- 5.- Noski, dudarik gabe.
- 6.- Ez dut ezagutzen.



Gorka Masach:

- 1.- Hamahiru urterekin hasi nintzen.
- 2.- Bost minutu egunean.
- 3.- Ez.
- 4.- Jokoetan jolasteko.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez.



Regina Esmoris:

- 1.- Hamabi urterekin hasi nintzen.
- 2.- Bi ordu egunean.
- 3.- Bai.
- 4.- Lagunekin eta kanpoan bizi diren senideekin hitz egiteko.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai, argazki pribatuak bidaltzea.



Mikel Albizu:

- 1.- Hamaika urterekin hasi nintzen.
- 2.- Ordubete egunean.
- 3.- Bai.
- 4.- Etxeko lanen argazkiak bidaltzeko.
- 5.- Bai.
- 6.- Pertsona baten gorputzaren argazkiak bidaltzea.




Patxi Aizpurua:

- 1.- Hamaika urterekin hasi nintzen.
- 2.- Pare bat ordu egunean.
- 3.- Ez.
- 4.- Lagunekin hitz egiteko.
- 5.- Bai.
- 6.- Argazki pribatuak publiko bihurtzea.



Telmo Altzibar:

- 1.- Hamar urterekin hasi nintzen.
- 2.- Asteburuetan gehienbat, lau ordu gutxi gorabehera.
- 3.- Ez.
- 4.- Komunikatzeko.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez.



DenBord-Pasa

a) ezberdintasunak

TXISTEAK

Aurkitu argazki hauetan dauden bederatziz ezberdintasunak:

*Nola esaten da
"maquillaje" euskaraz?
Harry Potter




*Zer esaten du E.T.-k
limoia jaterakoan?
"Mikaatzaa"

b) LABIRINTOA

d) ASMAKIZUNAK

Aurkitu labirinto honetatik irteteko bidea:

*Leize zuloan bi ate
biak daude parez pare
hor euri, hortxe haize,
hor lokatz berde-berde.




*Ilargia bezain borobila,
elurra bezain zuria,
eta bazkalosteko esnekia.

ERANTZUNAK:

a)



b)



d)

oizta-
sudu-
gaita

EGILEAK: Elene Arratibel, Iraide Udabe, Idrissa Sene eta Jon Muñoz

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TAILERRA 2015-2016

Ane Amutxastegi
Elene Arratibel
Ane Ladera
Lara Egaña
Haritz Alberdi
Julen Ayastuy
Jon Muñoz
Naia Zabala
Ane Larrañaga
Iraide Udabe
Idrissa Sene
Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

Itziarko Udazken Kulturala, azken txanpan

Itziarren Udazken Kulturalaren baitan antolatutako egitaraua azken txanpan sartu da. Itziarko Auzo Udalaren babesean, hainbat eragilek elkarlanean antolatutako kultur eskaintza azaroaren hasieran abiatu zen eta harrezkero izaera ezberdineko ekimen ugari burutzen ari dira. Oraindik ere bi hitzordu izango dira urtea amaitu baino lehen. Abenduaren 26an, larunbata, "Joseba B. Lenoir & Gakobeltzak" egitasmo musikalaz gozatzeko aukera izango da, Burugorri gunean 22:00etatik aurrera. Bukatzeko, hilaren 28an, astelehena, "Gu re bagea" lelopean egun osoko egitaraua burutuko dute (batzar irekiak, bazkaria, Gure Bazterrak Ezagutuz dinamika ezberdinak...).



Urtarrilaren 2an ospatuko da Urte Berriko Feria

Musika Bandaren kalejirarekin hasiko da Urte Berriko Feria, 9:30ak aldera. Goizeko 10:00etatik aurrera fruta eta barazki azoka, ganadu feria, artisau postuak... ikusteko aukera izango da. Urtero legez, Zoro Ferian musika eta dantzak ere ez dira faltako. Besteak beste, 10:30ean txistularien eta trikitilarien kalejira izango da, eta 11:30ean Debako musika eskolako dantzariak Aldats pilotalekuan arituko dira. 13:00etan banatuko dira ferriako sariak udaletxe azpian eta beranduago kalejira egingo du berriz ere Musika Bandak. Arratsaldean idi-probak izango dira Euskal Jolas pilotalekuan. Egun osoko egitaraua www.deba.eus atarian zintzilikatu du Udalak.



Beldur Barik lehiaketara aurkeztutako bi lanak saritu ditu epaimahaiak

Bi proposamen aurkeztu dira aurtien azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren baitan antolatutako Beldur Barik lehiaketara, eta biak ala biak saritu ditu Berdintasun batzordeko kideek osatutako epaimahaiak. "Gure artean ez dago matxismorik!" lanaren egileek -Isoken Gift Ebowe, Markel Lizaso, Jon Garrido eta Elene Gomezek- ehun euroko saria lortu dute lehiaketan. Eta beste hainbeste jaso dute "Lataratu beldurrik!" izenburuko lana aurkeztu duten herriko gazteek -Amaia Arozena, Irati Aznal, Ane Agirregabiria, Itzale Laka, Lide Laca, Julia Ron, Itsaso Iciar, Ane Agirrezabalaga eta Maialen Beristain-. Sariak Agirre jaurregian banatu ziren, azaroaren 20an, eta 60 bat lagun bildu ziren ekitaldian.

Bestetik, aurreikusita zegoen bezalaxe, Dantza eta Gorputz Adierazpen Tailerra burutu zen hurrengo egunean Agirre jauregian, baita elkarretaratzea egin ere azaroaren 25eko iluntzean (50 bat lagun bildu ziren Foruen plazan). Aurtengo egitarauari amaiera emateko, hitzaldia eskaini zuten Agirre jauregian hilaren 26an, "Zer egin emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean?" lelopean.

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna



Abenduaren 10ean, osteguna, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta plazan egindako giza sarearen irudia duzue goiko hau.

Gaur egun 12 dira larriki gaxorik dauden presoak, denak gaxotasun sendaezinekin, gehienak jaioterritik urruti, kilometro askora, zaintza egoki-

rik gabe.

Legean oinarrituz eta giza eskubideak kontuan izanik, ondorengo preso hauek kalean beharko lukete: Ibon Fernandez Iradi, Jose Ramon Lopez de Abetxuko Likiniano, Aitzol Gogorza Otaegi, Gorka Fraile Iturralde, Ibon Iparragirre Burgoa, Garikoitz

Arruarte Santa Cruz, Txus Martin Hernando, Josetxo Arizkuren Ruiz, Iñaki Etxeberria Martin, Lorentxa Guimon, Jagoba Codo Calleja eta Jose Miguel Etxeandia Meabe.

Berandu baino lehen etxean nahi ditugu.

Debako Sare

Euskal Kostaldeko Geoparkeak UNESCOren munduko geoparke izendapena eskuratu du

Azaroan hartu zuen erabakia UNESCOk, Parisen egindako 38. Biltzar Orokorrean, 195 estatu kideen parte-hartzearekin. Bertan adostu zuten izendapen berri bat sortzea: "UNESCOren Munduko Geoparkeak" eta, ondorioz, gaur egun munduan dauden 120 geoparkeak, euskal kostaldekoa barne, UNESCOk aitortutako toki izatera pasa dira.

Era berean, Biltzar Orokorra nazioarteko programa berri bat sortzea erabaki du: Lurraren Zientzien eta Geoparkeen Nazioarteko Programa.

2004. urtean Geoparkeen Munduko Sarea sortu zenetik, UNESCOk Geoparkeen lana babestu du, Sarean modu aktiboan parte hartuz eta Geoparkeen jardueretan UNESCOren garapen jasangarrirako balioak betetzen zirela ziurtatuz, hezkuntza, zientzia eta kulturaren bitartez.

Azken urteotan, UNESCOren eta Munduko Geoparkeen Sarearen arteko harremanak estutu egin dira, erakundearen baitan Geoparkeen gaineko programa zehatz bat sortzeko helburua lortze aldera. Dagoeneko programa horrek ikusi du argia.

"Izendapen berri honen onepena bultzada garrantzitsua da oso Geoparkearentzat. Batetik, azken urteotan burututako lana aitortzen duelako, eta bestetik, UNESCO markaren erabil-



penak promozio bide berriak irekiko dizkiolako nazioarte mailan", nabarmendu dute Euskal Kostaldeko Geoparkeko arduradunek.

Haiek azaldu bezala, hain zuzen ere, hemendik aurrera Geoparkeek beste figura ezagun batzuek duten aitortpen maila bera izango dute, hala nola UNESCOren Biosfera Erreserba, UNESCOren Munduko Ondarea edota UNESCOren Ondare Ez-materiala.

Zer da Geoparke bat?

Ondare ekologiko, natural eta kultural baliotsua duten lurraldeak dira Geoparkeak. Bertan, kontserbazio eta

garapen jasangarrirako kudeaketa estrategiak aplikatzen dira.

Munduan gaur egun 120 Geoparke daude, horietatik 69 Europako 23 herrialde ezberdinetan.

Euskal Kostaldeko Geoparkea Geogarapen Elkarteak kudeatzen du. Elkartea 2009an sortu zen Zumaia, Deba eta Mutrikuko udalen eskutik. Egun elkartea osatzen dutenak hauek dira: Zumaia, Deba eta Mutrikuko udalak; Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, UNESCO Etxea, Aranzadi, Debegesa agentzia, Urola Kostako Mankomunitatea, Debemen (Debabarreneko Landa Garapen Elkarte) eta Urkome (Urola Kostako Landa Garapen Elkarte).

Alzheimerrari buruzko bizipenen irakurketa, aldizkariaren aurkezpenean



Azaroaren 27an, ostirala, Arbil Elkarteak Deban eta Itziarren Alzheimerra duten gaixoen eta senitartekoen bizipenen liburuaren irakurketa antolatu zuen. Bizipen hauen irakurketa herriko gazteek eta helduek egin zuten. Eskerrik asko Julia, Uxue, Sara, Eñaut, Maribi, Falu, Nora eta Amaia.

Gaiaren aurkezpena Arbil Elkarteko zuzendariak eta errebistaren egileetako batek egin zuten: "Oroimenik gabe nortzuk gara? Deban eta Itziarren Alzheimerra duten gaixoen eta senitartekoen bizipenak". Irakurri ziren testuak errebistatik ateratakoak dira, eta, errebista bi euroan dago Arkatzen salgai.



Oroimena galtzea ez dela pertsona baten gaitza bakarrik, gizarte guztiarena baizik, eta hau oroimen historikoa galtzen dugunean gertatzen dela adierazten da aurkezpeneko mezuan. Memoria honetan, munduan dauden arazo askoren erantzule "Lehenengo Mundukoak" gairela aipatzen da. Bestalde, euskaldunok ere izan gara eta gara emigranteak eta, garai batzuetan, erbesteratuak ere.

Hitzordura etorri zirenek Alzheimerraren inguruko ikerketari buruzko galdera ugari egin zituzten.

Jose Luis Albizu

Udazkenean ere, Gaztelekuan tope!!



Aurtengo udazkenean ere, Debako Gaztelekua ekintzaz beterik egon da. Zubi Txiki egunarekin hasi zen gure udazkeneko plangintza. Urriaren 24an, zirko giroan murgildutako egun epel eta alaia izan genuen eta gure gazteek, 180 umek eta hauen gurasoek gozatu zuten egunaz.

Halloween edo arimen eguna ospatzeko, berriz, diskoteka antolatu genuen Gaztelekuan, eta dantza eta abestiak eta aurpegi margotuak izan ziren protagonista.

Musikaz beteriko ekintzez gain, kirol txapelketak prestatu dituzte Gaztelekuko zaharrenek hilabete osoan zehar, hala nola futbolin, ping-pong, billar eta Wii txapelketak. Bertako parte-hartzaileen kopurua urtetik urtera gora doa eta giro ederra sortzen dute adin desberdineko gazteek, denek batera arratsaldeaz gozatuz.

Ezin ditugu ahaztu Beldur Barik txapelketarako bi taldek egin zituzten lan ikaragarriak; izan ere, saria bi taldeek jaso zuten. Beraz, zorionak bi taldeei egindako lan eta esfortzuagatik! Aipatzekoa da, era berean, DBH 3ko gazteek egun hartako luntxa prestatu zutela eta, txukun eta antolaketa bikainarekin, askaria ere prestatu zuten. Zorionak zuei ere!

Bestetik, Euskararen asteburua ospatu zen Gaztelekuan. Horretarako, larunbatean euskaraokea egin genuen eta gazte askok parte hartu zuten; abestera ausartu ez ziren gutxi batzuk, berriz, animatzen ibili ziren. Igande arra-



tsaldean, aldiz, "Gaztekonkis 2014" emanaldia izan genuen, Jon Amutxastegik ekoiztutako lan bikaina. Horregatik, esker-erak eman nahi dizkiogu egin duen lanarengatik.

Azkenik, herritarren laguntzaz bigarren eskuko azoka antolatu dugu udaletxeko arkupeetan. Bertan lortutako irabazien erdia herriko Gizarte Zerbitzuekin adostuko dugun proiektu sozialera bideratuko dugu eta gainontzekoa 14-15 urteko gazte hauekin ikasturte osoan zehar burutzen ari garen proiektu soziohehitzailerako baliatuko da.

Gabonak gainean ditugu jada eta opor garaia udazkeneko lan hauen fruituez gozatzeko garaia izango da. Txuri Urdin, Gabonetako Parkea, bolatokia, ETBra irteera, Debacup futbol txapelketa... prestatu zaitezte!!!

Gaztelekuko hezitzaileak

Azaroan Abenturaz Blai!!



Zerbait berria egin nahian, abentura bila izan gara azaroan. Lehen irteera 3. eta 4. mailakoekin izan genuen Hontza Extrem parkera. Eguraldi eta giro paregabea izan genituen eta abentura ezin hobea bizi izan genuen zuhaitzen artean ibilbide ezberdinak egiten. Tirolinetan behera barreen artean ipurdiko batzuk ere izan genituen tarteko!


Bigarren irteera herriko txiki-txoekin izan zen, 1. eta 2. mailakoekin, eta Irrisarri Land parkea bisitatu genuen. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, pozik ibili ginen! Abenturaz jositako eguna pasa genuen, arku eta gezien artean, puzgarrietan saltoka, mota ezberdineko txirrianduetan ibili ginen eta Baxi ezagutzeko aukera ere

izan genuen!

Guk primeran pasa dugun neurrian, espero dugu zuek ere guk bezain beste disfrutatu izana azaro abenturazale honetan! Mila esker hau guztia posible egiten duzuen guztioi!

"Pausoz pauso bagoaz aurrera, poliki-poliki betez gure ametsa".

Kolore Anitz Aisialdi Taldea



Agenda

Abenduak 24, osteguna

-12:30. **Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria**, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitarteko postua Foruen plazan.
-17:00. **Presoen aldeko Olentzeroa**. Plaza zaharretik irtengo da.

Abenduak 25, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratze berezia. Foruen plazan.

Abenduak 26-30

-**Debako VIII. Animazio Zinemaldia**. Animadeba 2015. Informazio gehiago ale honetako 10. orrialdean.

Abenduak 27-28

-**Gabonetako haur parkea**, Aldats pilotalekuan.

Abenduak 28, astelehena

-12:00. **Jaiotza biziduna**, Elizan.

Abenduak 29, asteartea

-19:00. **Mugi Daitezen Harriak**, Foruen plazan (Sarek deituta).

Abenduak 31, osteguna

-11:00-13:00. **VII. San Silbestrea**, lasterketa herrikoia. Plaza berrian.
-13:00. **Debako Musika Bandaren kontzertua**, elizan.
-19:30. Presoen aldeko **elkarretaratzea eta brindisa**, plazan.

Urtarrilaren 1etik 7ra

-**Urteberriko Idi-Probak**, Euskal Jolasen.

Urtarrilak 2, larunbata

-**Zoro FERIA**. Egun osoko egitarau berezia antolatuko da (fruta eta barazki azoka, ganadu feria, dantzak, kalejirak...).

Urtarrilak 4, astelehena

-19:00. **Bideo emanaldia: "A mi manera"** (Pablo Sorozabalen biografia: bizitza eta obra). Ispiluen gelan.
-19:00. **Bizar Zuri**, Gurutze ermitan.

Urtarrilak 5, asteartea

-19:00. **Errege kabalgata**, herriko kaleetan zehar.

Urtarrilak 20, asteazkena

-**San Sebastian deunaren jaiak** Elorriagan.

Erakusketa

-**Haitz Haundi elkarteak antolatutako pintura erakusketa**, udaletxean. Abenduaren 19tik urtarrilaren 4ra bitartean egongo da ikusgai: 18:00etatik 20:00etara lanegunetan eta eguerdiko 12:00etatik 14:00etara jaiegunetan.

Gaztelekuko ekimen bereziak

-Urtero bezala, gabonetako egitarau berezia antolatu du Debako Gaztelekuak, gazteekin elkarlanean.

Gabon kantak abestera irtengo dira, adibidez, hilaren 24an. Ondorengo egunetan, honako ekimenak egingo dituzte: bingoa, DebaCup, txangoa Txuri Urdinera, Gu Ta Gutarrak telebista saiora publiko bezala joango dira, hegazkin hegalariei txapelketa, irteerak Durangoko bolatokira edota Barakaldoko gabonetako parkeera. Animatu eta parte hartu!



Informatika ikastaroak

-**KZguneak** arratsaldeko ordu-tegiarekin (16:00-20:00) abiatuko du urte berriko eskaintza. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: sare sozialak, oinarriko

internet, Ofimatika-Software librea, Google Apps...

Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunea.net.

Gabonetako ordutegi berezia liburutegian

Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du gabonetan. Abenduaren 21, 22, 23, 28, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 4an eta 5ean honako ordutegia

izango du: liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara eta haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte. Abenduaren 24an eta 31n 13:00etan itxiko da.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abenduak 21, 22, 23, 24.**
urtarrilak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.
Burgoa Zuazo: **abenduak 25, 26, 27.**
urtarrilak 4, 5, 6, 7, 22, 23, 24.


22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urtarrilak 9 eta 16
BURGOA ZUAZO: abenduak 26
urtarrilak 2 eta 23

9:30 - 13:30



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada N° 2/05/049
NIVEL 2



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzza

943 191 383
berriketan@zuhatza.com



Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
Telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



kutxa



kutxabank



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95




URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

 No. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel/Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
Estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL
FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe . 20820 DEBA
943 029 186

AZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
197Setik zuekin!



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoi**iko**

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresioak
- * Dietista
- * Podologia

Lesandi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

BADAT0Z 0LENTZERO ETA MARI DOMINGI

EGUBERRI ON!!

Abenduak 24, osteguna
12:30ean ongieforria
plaza zaharrearan.

ondoren, salda eta ogitarfeko
postua Foruen Plazan.



DEBABA UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

**Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!**



Ifar kalea, 12 - 943 192 236

20820 DEBA • udaleuskaltegia.deba@debabe.eus